

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gorlizko Udala****Premiazko deialdia, banakoei, familia-unitateei, autonomoei eta ETEei zuzendutako diru-laguntzak emateko, koronabirusaren (COVID-19) pandemiaren ondoriozko krisi ekonomikoko egoerak arintzeko.**

2020ko uztailaren 15ean, 362/2020 Alkatetza Dekretuaren bidez, onartu egin ziren Koronavirus (COVID-19) pandemiaren ondoriozko krisi ekonomikoko egoerak arintzeko banakoei, familia-unitateei, autonomoei eta eteei diru-laguntzak nola eman arautzen duten oinarriak.

Hori dela eta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.s) artikulua emandako eskumenen arabera

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Gorlizen erroldatuta dauden edo udalerrri honetan jarduera ekonomikoa egiten duen erakundearen egoitza soziala duten edo udalerrri horretan jarduera ekonomikoa garatzen duten pertsonentzako diru-laguntzen deialdi hau Onartzea, nahiz eta bertan erroldatuta ez egon (hori guztia 2020ko martxoaren 14an), koronabirusaren (COVID-19) bilakaeraren ondoriozko egoerak arintzeko.

Bigarrena: Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea jakinaraztea.

1. Eskabideak aurkezteko epea eta tokia: Eskabideak hogeit eguneko epean aurkeztu ahal izango dira, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabide orokorraren eremuan. Eredu hori udal honen bulegoetan eta haren webgunean dago eskuragarri.

Eskabideak udaletxeko sarrera-erregistroan aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bideetako bat erabiliz.

2. Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da:

— Laguntzak emateko deialdiaren oinarrien 4. puntuan (Alkatetzaren 362/2020 Dekretua, 2020ko uztailaren 15ekoa) adierazitakoa:

- Gorlizen erroldatuta egotea edo udalerrri horretan jarduera ekonomikoa egiten duen erakundearen egoitza soziala izatearen egiaztagiria, edo udalerrri horretan jarduera ekonomikoa garatzea, bertan erroldatuta ez badago ere. Hori guztia 2020ko martxoaren 14an.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ) dagokion atalean alta emanda egotea, pertsona autonomoa, txikizkako merkataritza edo merkataritza-sozietatea izanez gero.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako klausuletako batean ere ez dagoela dioen zinpeko aitortpena.
- Udal Diruzaintzarekiko, Bizkaiko Foru Ogasunarekiko, Zerga Agentziarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketetan egunean egotea 2020ko otsailaren 29an.

— Laguntzak emateko deialdiaren oinarrietako 9. puntuan jasotako balorazio-irizpideak baiesteko behar den dokumentazioa (Alkatetzaren 362/2020 Dekretua, 2020ko uztailaren 15ekoa).

Hirugarrena: Berrehun mila (200.000,00) euroko gastua baimentzea 2020ko Udal Aurrekontuan, Gorlizko Udalaren aurrekontu-egozpen honen arabera: 2390-48000 partida.



Laugarrena: Deialdi hau udal iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalaren bidez. Horretarako, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira aldez aurretik.

Bosgarrena: Jakinaraztea deialdi hau arautzen duten oinarriak Alkatezaren 2020ko uztailaren 15eko 362/2020 Dekretuaren bidez onartu direla, eta deialdi honetan aurreikusi ez den guztian oinarri hauek arautuko direla.

Gorliz, 2020ko uztailaren 17an. — Alkatea, Nagore Utxupi Larrazabal